



## Natura eta garapena

Hutsun+Ortzi konpainiaren 'Urbasa' antzezlanak ireki ditu udalaren uztailleko kultur agenda eta 'Kale Antzerkia Bultzatuz' zikloa / 5

## Aldaketa, faseka

Arau Subsidiarioak Hiri Antolamenduko Plan Orokor bihurtuko ditu Lasarte-Oriako Udalak / 2

Zenbait alderdi politikok ekitaldiak egin dituzte herrian, kanpainako azken egunetan / 4

Aiora Belartietak herritarrek Euskotren ligari ekin dio Donostia Arraun Lagunak taldearekin / 11

LENTILAK EROSTEAN

**WILDGO  
EGUZKITAKO  
BETAURREKOA  
OPARI**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE-ORIA

**MULTIÓPTICAS**

www.multiópticas.com   



# Hiri Antolamendu Plan Orokorra eta parte hartzea

Lasarte-Oriako Hiri Antolamendu Plan Orokorrean parte hartzeko aukera dute, jada, herritarrek. Prozesuak bost fase ditu eta hainbat hilabete iraungo dituela iragarri dute. Fase bakoitzak bere parte hartze prozesua izango du

## Txintxarri

Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak, Herritarren Partaidetzarako zinegotzi Nagore Duranekin batera, udalerriko Antolamendu Plan Orokor (HAPO) berria egiteko herritarren partaidetzarako programa aurkeztu zuten astearte goizean. Dagoeneko abiatu dute prozesua, planaren hasierako fasea, edo 0 fasea, alkatetzak uztailearen 2an partaidetza programa onartu zuzenean hasi zen.

Valdiviak azaldu du plana legegintzaldi honetan onartu nahi dutela behin betiko, baina hori gertatu arte, hasierako dokumentuak landu ahala, lasarteoriatarrek parte hartzeko hainbat aukera izango dituztela; prozesuaren fase bakoitzak parte hartze prozesu bat izango duela iragarri du. Horretarako, saio irekiak, tailerrak, bilera sektorialak eta sareko hainbat prozesu antolatuko dituzte, uneen uneko informazio guztia emateko eta herritarren iritziak jasotzeko.

## Programaren helburua

Lasarte-oriatarrek Hiri Antolamendurako Plan Orokorra zer den ezagutzeko da programaren helburuetako bat, baita Plagintzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko eta Hiri Antolamenduko Plan Orokor bihurtzeko proposamenaren edukia eta irismenean modu aktiboan parte hartzeko aukera ahalbidetzea.

Guztira bost fase izango ditu prozesuak, eta dagoeneko eman diote hasiera lehenengoari. Kultur etxean herritarrei zuzendutako saio batekin eman diote hasiera, eta, bertan, irekitako prozesua azaldu dute. Sortzen den informazio guztia udalaren webgunearen bidez jarraitu ahal izango dela ere jakinarazi dute.

Plangintzaren aurrerapena idatzi ondoren, dokumentua jendaurrean erakutsiko da hiru



Nagore Duran eta Agustin Valdivia prozesua aurkezten. TXINTXARRI

## HERRITARREK HIRI ANTOLAMENDURAKO PLANA EZAGUTU ETA BERTAN PARTE HARTZEA DA XEDEA

## AZKEN PROZESUAN UDALBATZAK BEHIN BETIKO ONARTUTA EZAGUTARAZIKO DA AZKEN DOKUMENTUA

hilabetez; urriaren 31ra arte. Aldi horretan, beste bi saio ireki egingo dituzte, iralaren 15ean bat eta urriaren 15ean bestea, eta, horrez gain, sei tailer ere egingo dituzte. Emakumeekin, gazteekin eta adinekoekin egingo dituzte saio horiek, "planteamendua kontrastatzeko". Erakusketa bat ere antolatuko dute, material grafiko eta testuak bilduko dituen, eta etxetara ere informazio laburtua biltzen duen eskuorria ere bidaliko dute. Kontsulta-prozesuan

egindako ekarpen eta iradokizunak biltzen dituen txosten bat eginez amaituko dute lehen fasea.

## Planaren hasierako onarpena

Bigarren fasean, berriz, udalbatzak HAPO planaren dokumentu berriari hasierako onarpena emango dio. Dokumentu hori bi hilabetez egongo da ikusgai, eta herritarrei informazioa emateko eta herritarrek parte hartzeko prozesua ere izango ditu.

Horren ostean irekiko da hirugarren fasea. Horretan, udalbatzak behin-behinean onartuko du Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, eta organo eskudunei aginduzko txostenak eskatuko zaizkie, eta hori eta gero etorriko da azken aurreko fasea: laugarrena. Horretan, udalbatzak behin betiko onartuko du dokumentua, eta herritarrei azken dokumentuaren berri emango zaie.

Hiritik-at enpresa kontratatu du udalak parte-hartze prozesua aurrera eramateko, eta jakinarazi dute 16.698 euro bideratuko dituztela horretarako.



Ezker-eskuin: Javier Colorado, Oscar Guinaldo eta Pili Bermejo. URBIL

## Urbilek osasun eta garbitasun materiala eman dio Jalgunerri

Merkataritza guneak erantzukizun sozial korporatiboko kanpaina bat martxan jarri du

## Txintxarri

Urbil merkataritza guneak hainbat garbitasun eta osasun material eman dio Jalgune Elkarteari, bere jarduera "normaltasun berriaren" fase honetara egokitu dezan. 600€urotan balioztatutako dohaintzaren osagaiak, besteak beste, latex eskularruak, hidrogela, maskarak, eskuetarako xaboia, zabor poltsak, pedaldun paperontzia, lixiba eta paper-zapi bustiak dira.

Duela astebete pasatxo, merkataritza gunean bertan, Jalguneko ordezkari Pili Bermejok

eta elkarteko gazte batek, Oscar Guinaldo herritarrek, jaso zuten materiala Urbileko kudeatzaile Javier Coloradoren eskutik. Ekintza honekin, erantzukizun sozial korporatiboko kanpaina berri bat sustatu du Urbilek, bere inguru hurbilean bizitzen ari den egoera hobetzea helburu duena. #UrbilKonpromisoa izena du proiektuak.

Jalgunek 27 urte daramatza lan eskerga egiten herrian, aniztasun funtzionala duten pertsonekin eta pertsonentzat. Makina bat aisialdiko ekintza antolatzen ditu urtean zehar.

## Biyak Bat egoitzak hilaren 16an irekiko ditu atek berriro

Biyak Bateko arduradunek jakinarazi dutenez, adinekoen egoitzak datorren asteo ostegunean zabalduko ditu atek berriro, uztaile 16. Taberna 10:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 21:00etara irekiko dute, esate baterako. Ile-apaindegi eta kiromasaje zerbitzuak erabili nahi dituzten herritarrek aurrez eskatu beharko dute hitzordua.

Bulegoan lan egiten ere hasiko dira, astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 12:30era. Edozein zalantza argitu edo informazioa eskatzeko, lasarte-oriatarrek deitu dezakete 943 363 964 telefonora, edo, bestela, [biyakbat@gmail.com](mailto:biyakbat@gmail.com) helbide elektronikora idatzi.

## Igogailu eta arrapalak instalatzeko diru laguntzak

Irisgarritasuna hobetzeko helburuz, Lasarte-Oriako Udalak diru laguntza lerro bat prestatu du igogailuak eta arrapalak instalatu nahi dituzten jabe komunitateentzat. 60.000 euro bideratuko ditu aurtan. 10.818 eurora artekoak izango dira igogailuentzat. Arrapalenzat, aldiz, 1.813 eurokoak. Eskaerak egiteko epea irekita dago. Lanek 2019ko azaroaren 1etik 2020ko urriaren 31ra bitartean bukatuta egon behar dute. Epeak, hauek: ekainaren 19rako bukatuta zeuden obrak finantzatzeko, egun horretatik hasi eta hurrengo bi hilabeteak; beranduago bukatzea aurreikusten direnentzat, berriz, ekainaren 19tik azaroaren 20ra.



Dantza Eskolako ikasle talde baten emanaldi bat Manuel Lekuona kultur etxean. TXINTXARRI

# Dantza eskolan izena emateko epea, zabalik

Datorren ikasturtean bertan ikasi nahi dutenek hilaren 17a arte dute lekua eskatzeko aukera. 9 urtetik gorakoek mailaketa proba bat egin beharko dute. Behin betiko matrikula irailaren lehen hamabostaldian egin beharko dute Manuel Lekuona kultur etxean

## Txintxarri

Datorren ikasturtean Dantza Eskolan ikasi nahi dutenek hilaren 17a arte dute aurre matrikulazioa egiteko aukera. Saioretan landuko dena, psikomotritzitatea (lateralitatea), kokatzeko era (oinak, belaunak, aldakak, gorputzenborra), inprobisazioa, "dantzara bideratutako" prestakuntza fisikoa eta potentzia nahiz malgutasuna areagotzeko lurreko ariketa-serieak dira.

Ikastaroak hileko 33,20€uroko kostua du erroldatuentzat eta 57,10 eurokoa erroldatu gabentzat. Gainera, Gazte txartelaren

titularrek %10 deskontua izango dute. Behin betiko matrikula irailaren lehen hamabostaldian egin beharko dute Manuel Lekuona kultur etxean. Urriaren 1ean hasiko duten ikasturtean 9, 10, 11 eta 12 urteko taldeetan sartu nahi duten ikasle berriek eta helduek mailaketa-proba bat egin beharko dute.

## Ordutegiak, adinaren arabera

Hauek izango dira Dantza Eskolako ikasleek 2020-2021 ikasturtean izango dituzten ordutegiak. Adinaren arabera osatuko dituzte ikasle taldeak. 6 urtekoek astelehen

eta asteazkenetan egingo dituzte saioak, 17:30etik 18:15era; 7 urtekoek, bi egun horietan eta 18:00etatik 19:15era; 8 urtekoek, astearte eta ostegunetan 17:30etik 18:30era; 9 dauzkatene bi egun horietan eta 18:30etik 19:30era; astelehen eta asteazkenetan ariko dira 10 urteko gaztetxoak, 19:00etan hasi eta 20:00ak arte; 11 urtekoek astearte eta ostegunetan entseatuko dute 19:30etik 20:30era; 12 urtekoek, astelehenetan, 20:00etatik 21:15era, eta 17:30etik 19:00etara ostiraletan; azkenik, helduek, asteazkenetan 20:00etatik 21:15era eta ostiraletan 19:00etatik 21:00etara.



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

## SELEKTIBIT-ATEA?

Amaitzean dagoen aste hau erabakigarria izango da askorentzat, eta ez, ez naiz hauteskunderik ari, batxilergoko ikasleek baizik. Eta noski, kopetan, begizuloetan, azkazalik gabeko eskuetan tatuatuta daramazuen hitzak, selektibitate. Izan ere, hori guztia eragiten du selektibitateak: urduritasuna, presioa, insomnia, eta hezkuntza sistema sano batek sortu behar ez lituzkeen beste hainbeste gauza.

Aspaldidanik onartu zenuten tokatzen zitzaizuela eta kitto, zuen aurrekoek egin zutela eta ondorengoek egingo dutela, eta ez zaituztela inork egitera behartzen, esplizituki behintzat, baina badagoela hor azterketa madarikatu hori prestatzera bultzatzen zaituzten indar bat: presioa.

Anderrek ez du ikasteko baliabide nahikorik izan konfinamenduan ordenagailu bat besterik ez dutelako hiru anai-arrebentzat; Izarri aitona hil zitzaion orain astebete; Norak medikuntzan sartu nahi du, eta presioak ez dio ikasten utzi. Baina berdin dio, kasuak kasu, haien etorkizuna asteazkenean erabaki zen azken azterketa amaitu berritan.

Berdin dio zein den norberaren egoera pertsonala produktiboak garen bitartean, urtean zehar irentsitako guztia paperean botaka egin eta sistemaren funtzionamendu egokia bermatuko duzuen bitartean, badakizue, kapitalismoa. Selektibitatea eta produktibitatea errima estuak dira oso, eta ez da kasualitatea.

Hiru egun hauek zuen etorkizuna erabaki dutela sinestarazten badizute ere, zuen esku dago dena, norberaren erabakiek eraikitzen baitute norberaren etorkizuna.

Gazteak, ez ahaztu ez zaretela zenbaki huts bat eta sistema ez dela nor zuek hala sentiarazteko. Gozatu uda eta gozatu zuen burua!

## Arratsalde irekiko dituzte ikastetxeetako patioak udan

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du uztailean eta abuztuan arratsalde zabalduko dituela herriko zenbait ikastetxeetako patioak: Oriarte-Landaberi BHI eta Garaikoetxeakoak bai, irekiko ditu, baina Sasoetakoa ez, ikastetxea obretan baitago asteotan.

Uztailean eta abuztuan zehar 16:00etatik 21:00etara arte

zabalduko dituzte aipatutako patio horiek, astelehenetik igandera. Ordubetez luzatu dute ordutegia, eta goizetan ixtea erabaki. *Patioak irekita* egitasmoa aurkeztu zuen udalak martxo hasieran, COVID-19aren pandemiagatik Lasarte-Oria ere Alarma Egoeran eta konfinamenduan sartu aurretik. Programaren helburua da herriko ikastetxeetako patioak lasarte-oriatarren eskura jartzea, gune horiek aisiako eta bestelako jarduerak egiteko baliatu ditzaten.



# Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Urtinea Loradendaren eskutik **LORE-SORTA** eder bat zozkatuko dugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena uztailearen 18a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean, eta 646. 82 44 66 (whatsapp)



**NOAOA**  
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

**943 37 36 13**

Ordutegia: **09:30-13:30**

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

**info@noaa.eus**



# Hauteskunde kanpaina, azken txanpan

Igande honetan izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, uztailak 12. Ekitaldiak ugaritu dituzte alderdiek kanpainako azken astean, eta horietako hiruk Lasarte-Orian antolatu dituzte zenbait: EAJk, PSE-EEK eta EH Bilduk

## Txintxarri

Bi egun besterik ez dira falta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako. COVID-19aren pandemiak ezarri du boz hauen erritmoa, eta kanpaina oso kondentsatua izan da, bi aste eskas iraun baititu. Ia egunero egin dituzte ekitaldiak alderdi politikoei; horietako batzuk, gure herrian, Lasarte-Orian, hautesleak irabazi asmoz. Ikusteke dago zer gertatuko den igande honetan, zenbat jende animatuko den botoa ematera, koronabirus agerraldiak gertatzen ari baitira azkenaldian.

PSE-EEK Isla Plazan egin zuen mitina asteazkenean. Alderdi sozialistaren idazkari nagusi eta lehendakari Idoia Mendia eta Gipuzkoako zerrendaburu Eneko Andueza jardun ziren, herriko alkate Agustin Valdivia eta Udal Gobernuak zenbait kide bertan zirela. "Euskal sozialistok ezin dugu etxean geratu uztailaren 12an", nabarmendu zuen Mendiak. "Nazionalistek irabazi eta eurei bakarrik interesatzen zaizkien politikak egitea saihestu behar dugu; ezkerreko bozkatu nahi dutenentzat, alderdi sozialista da aukera".

Gipuzkoako zerrendaburu Eneko Anduezen aburuz, Mendia izan zen astearte gaueko

hautagaien eztabaidako "garaile argia". "Konponbideak jarri zituen mahai gainean, beste batzuek zarata besterik egin ez zuten bitartean". Uste du alderdi sozialistak "emaitza oso onak" lortuko dituela igandean. Isla Plazako ekitaldia amaitu eta gero, Andatza plazarako azokara joan ziren PSE-EEKo ordezkariak.

## "Sorpresa emateko prest"

Dozenaka herritar gerturatu ziren astearte arratsaldean Gipuzkoako EH Bilduk antolatutako ekitaldira. Koalizio abertzalearen herriko zinegotziek harrera egin ostean, Oihana Etxebarrieta eta Juan Karlos Izagirre mintzatu ziren Okendo plazan. Uztailaren 12an "bozka bakar batek ere" etxean geratu ezin duela esanda, EH Bilduren aldeko hautua egitera deitu zituzten lasarte-oriatarak. "Igandean sorpresa emateko prest gaude". Gaur, uztailak 10, bizikleta martxa egingo dute Okendotik, 19:00etan.

Oihana Etxebarrieta legebiltzarkide lanetan aritu da legealdi honetan, eta EH Bilduren Gipuzkoako zerrendetan aurkeztuko da berriro, zazpigarren postuan. Astearteko ekitaldian, azpimarratu zuen gobernuak konprometituta egon behar duela

herritarren beharrekin, eta gaur egungo agintariei hori ez dutela egiten. "Ez dira ez abertzaleak ez sozialistak; EAJren interesei besterik ez diete erantzuten".

## "Inor atzean utzi gabe"

Elizate plazan egin zuen EAJk lurraldeko mitina, astelehen iluntzean. Eusko Legebiltzarrerako Gipuzkoako hautagai Joseba Egibar, Eva Juez, Saioa Bandres eta Markel Aranburu aritu ziren. Egibarrek azaldu zuen beharrezkoa dela elkarlanerako eta eraikuntza politiko eta sozialerako ereduak bultzatzea, "Euskadik gaur egungo egoera gainditzeko eta etorkizunerako estrategia fidagarriak bideratzeko".

Eva Juezek hitz egin zuen gero, eta honek, haurren eta gazteen eskubideen alde egin zuen, hezkuntzari erreferentzia eginaz. Markel Aranburu EGiko (Euzko Gaztedi) idazkari eta kideak hartu zuen hitza, eta honako hau azpimarratu: "Giza eskubideak beti oinarri, pertsona guztiak errespetatu eta jarduera politikoa pertsonen ongizatera bideratu. Inor atzean utzi gabe".

Amaitzeko, Saioa Bandres hartu zuen hitza. "Konpromisoa hartzen dugu, Euskadi modu tinkoan zutik jartzeko, guztion artean, pertsona ardatz".



Goitik behera: EAJ, PSE-EE eta EH Bilduk herrian egin dituzten ekitaldiak. TXINTXARRI

## Aldaketak hauteskunde mahaietan

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du igandeko hauteskunde mahaietan aldaketak egingo direla. Era berean, sarrera eta irteera puntu guztiak seinaleztatu egingo dira. Herritarrei eskatu die horiek errespetatzeko.

Sasoeta ikastetxean, esate baterako, beste toki batetik sartu beharko dute herritarrek igandean. Ohiko sarbideetik ez, goialdean dagoen aparkalekutik baizik. Bozka eman eta gero, orduan bai, ohiko sarbide horretatik irtingo dira lasarte-

oriatarak. Mahaiak ere beste era batera antolatuko dituzte: liburutegian eta pasiloan zeudenak beheko solairuan dauden gela batzuetan jarriko dituzte; aurreko aldietan beheko solairu horretan zeuden mahaiak toki berean mantenduko direla adierazi du udalak.

Aldaketa gehiago. Manuel Lekuona kultur etxeko barrutiko mahai guztiak lehenengo solairuko kafetegiz guztian jarriko dituzte igandean. Liburutegi zaharreko barrutian —Ola kalean dago—,

berriz, aurrean ez dute hauteskunde mahaiak jarriko, guztiak Sasoeta-Zumaburu HH ikastetxeko gimnasioa eramango baituzte, Zumaburu kalera, eta gune horretan egon ohi ziren mahaiak jangelan kokatuko dituzte, gimnasio ondoan.

Hamahiru barruti egongo dira uztailaren 12ko hauteskundeetan, eta 22 mahai. Ekaineko ohiko udalbatzarrean zozkatu zituzten mahaiak, eta aukeratu daude honezkeroko 22 lehendakari eta 44 bokal. 14.371 lasarte-oriatar daude bozka ematera deituta igande honetan.



2019ko udal hauteskundeetako mahai bat. TXINTXARRI





Tlalaparta doinuak zirkoaren mugimenduarekin elkartuta osatu dute Urbasa ikuskizuna. TXINTXARRI

# Tlalaparta eta zirkua aurrez aurre, Okendon

Kale Antzerkia Bultzatuz zikloko lehen emanaldia egin dute uztailearen 3an; Hutsun+Ortzi taldeak txalaparta eta zirkua ekarri ditu Okendo plazara, 'Urbasa' ikuskizunarekin. Ikuskizuna zuzenean jarraitu du TXINTXARRI-k

## Txintxarri

Hesiekin osatutako itxitura eta haren barnean 200 eserleku. Aulki artean, metro eta erdiko tartea. Segurtasun baldintzak betetzen zirela ziurtatzeko lau kide ibili ziren sartzen zirenei non eseri azaltzen. Musukoa jartzea ezinbesteko baldintza izan zen eseri arte; aulkira heltzean, berriz, batzuek kentzea eta beste batzuek mantentzea erabaki zuten. Neurriok medio, ordua baino minutu batzuk geroxeago hasi zen ikuskizuna. Zenbait aulki hutsik gelditu ziren, baina hainbatek hesiaren beste aldetik begira jarraitzea nahiago izan zuten, nahiz eta ohartarazi ezin zutela bertan gelditu eta emanaldia doakoa izan.

Zirkulu erdia osatuta jarritako ikusleen aurrean, Urbasako zuhaitzak irudikatzen dituzten zenbait ohol eta hiruki itxurako egitura bat zeuden. Txorien txioak eta naturako soinuak entzutearekin batera, burua estalita zuten bi gizon agertu ziren. Enbor batetik bestera, haien atzean ezkatututa, mugitzen joan ziren Hutsun txalaparta taldeko kide Anai Gandra eta Mikel Urrutia. Gero, ikusleen aurrera atera, kaputxa kendu, eta txalaparta jo zuten. Bat-batean, ordea, burdinazko pieza bati bultza eginez ohol guztiak lurrera bota zituen beste gizon bat agertu zen. Bizkarrean zeraman kutxa lurrean utzi eta piztu egin zuen, elektrizitate zarata

eginez. Ondoren, burdinazko pieza zintzilikatu, eta hura baliatuta, akrobaziak egiten hasi zen. Ortzi Acostak aho zabalik utzi zuen begira zituenetako bat baino gehiago eta txaloak ere jaso zituen erakutsitako abileziagatik.

Hala, naturan lasai bizi diren gizakien eta teknologiaren bidez inguru baketsu hori aldatzera etorritako ezezagunaren arteko gatazka irudikatu zuen hirukoteak. Hitzik gabeko ikuskizuna izanda, horretarako, txalaparta nahiz perkusioa erabili zuten lehenek, eta zirkua, besteak. Edonola, 50 bat minutu iraun zituen antzezlanak aurrera egin ahala, pertsonaien jarrerak hurbiltzen joan ziren.



Gaztezulo XI. Bideo Lehiaketako ikusleen saria irabazi du herritarrak. OIHANE PUERTAS

## Oihane Puertasentzat Gaztezulo XI. Bideo Lehiaketako sari bat

Denbora gutxian bigarren saria irabazi du herritarrak. Idoia Lahidalga ikaskidearekin batera sortu du azken lana

### Txintxarri

*Errealitatetik ihesi* izeneko ikus-entzunezkoa sortu du Idoia Lahidalga ikaskidearekin batera, eta euren lana izan da publikoaren bozka gehien jaso dituenena. Duela gutxi ere beste sari bat eskuratu zuen bikoteak: EUSPOT euskarazko spot lehiaketaren sari nagusia

XI. edizioa izan da Gaztezuloren Bideo Lehiaketaren aurtengoa.

Guztira 27 lan lehiatu dira, eta horietatik hiruk lortu dute saria. Danobatgroup enpresak babestu du aurtengo publikoaren saria, eta hain zuzen ere, hori eskuratu du Oihane Puertas eta Idoia Lahidalgaren lanak. Euren sortutako poema bati irudiak jarrita osatu dute lana, eta bakoitza bere burua ezagutzera eta maitatzera bultzatzea du helburu.

## Okendo Zinema Taldearen eskutik, zinea udan

Okendo Zinema Taldeak bi emanaldi antolatu ditu uztaileko. Pasa den asteazkenean egin zuten lehena, uztailek 8, Okendon. Wes Andersonen *Isla de perros* filma proiektatu zuten. Hilaren 22rako beste emanaldi bat programatu dute: *Amazing Grace* dokumentala, Okendon, 22:15ean hasita.



Asteazkeneko emanaldia. TXINTXARRI



# GOBERNATZEKO PREST

**MIREN GORROTXATEGI**  
Lehendakari hautagaia  
<http://mirengorrotxategi.eus>






# PLAZAN BAZAN

## Engainariak

Hamar puska hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



## Hara!

Gizakiok, batez beste, bost milioi ile ditugu gorputzean. Batzuek oso iletsuak dirudite eta beste batzuek ez, baina aldea ez dago kopuruan, ileen lodieran, luzeran eta neurrian baizik. Oinetatik hasi eta osa ezazu irudia. Zer izango ote den, zure kontu.

## Zer arraio


Hiru esaldi hauetatik zuzena zein den asmatuz gero, IKOROSKI hitza ulertu duzun seinale.

Ikurrinak gurutze zuria eta ikoroski berdea ditu.




Ikoroskia ahotik botatzen den puzkarra da.

Ikoroskiak harribitxi bereziak dira.



## Sudokua

Uda beteko fruta da meloia. Osa ezazu sudoku hau, MELOIA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (M, E, L, O, I eta A). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



|   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|
| O |   | L | E |   |   |
|   | M |   | L |   | O |
| A |   |   |   | E | L |
| M | E |   |   | I |   |
| I | M | A | L |   |   |
| L |   |   |   |   | M |







**HamaikaKoa** Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



**Itzala** Bai dibertigarria tirolinal! Asma ezazu tirolinan doan honen itzal zuzena.







Alboka Abesbatzak 'Marxa baten lehen notak' doinua grabatu zuen ibialdian; kontzertuan, zuzenean entzuteko aukera izango da. ALBOKA ABESBATZA

## Egoera arindu eta alaitzeko kontzertua

"Normaltasun berriko" lehen kontzertua eskainiko du Alboka Abesbatzak bihar, San Pedro elizan. Larrialdi egoeran etxean lan eta lan egon ostean, "mimo handiz" prestatutako sei abestiko egitaraua eskainiko die abesbatzak lasarteoriarrei

### Nerea Eizagirre

Alboka Abesbatzak, aurreikusia zuena baino hilabete beranduago bada ere, bihar, uztailak 11, larunbarekin, ikasturte amaierako kontzertua eskainiko du, 20:00etatik aurrera, San Pedro elizan.

"Ekainean urte osoan egindako lanaren fruitua eskaintzea gustatzen zaigu. San Pedrotako kontzertua bereziki mimo handiz prestatzen dugu beti", adierazi dute Abesbatzako zuzendaritzako kideek.

Ez da ohiko kontzertua izango noski: egoera arintzeak eta "normaltasun berriak" hori ahalbidetu dutenetik, hilabete izan du abesbatzak emanaldia prestatzeko, eta horrek egitaraua egokitzea ekarri du.

San Pedro elizara hurbiltzen diren herritarrek sei doinu entzun ahalko dituzte. Abesbatzak doinu ezagunak, hala nola, Lesbordesen *Kantuz* edo Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* eta nazioarteko abestiak eskainiko ditu bere emanaldian. Ekitaldiak edukiera

murriztua izango du eta ikusleek maskara eraman beharko dute.

Alboka Abesbatzako zuzendaritza taldeko kideek azaldu moduan, ekainean egin ohi duten kontzertua ikasturte hasieran prestatzen hasten dira eta hango eta hemengo emanaldiekin uztartzen dute. "Ekaineko kontzertua ikasturte hasieratik prestatzen hasten gara, errepertorioa pixkanaka berrituz, baina batez ere urtarriletik aurrera zentratzen gara honetan", azaldu dute abesbatzako kideek.

### Jaietan ezin abestu

Aurtengoa, ordea, ikasturte amaiera berezia izan da eta aurreikusitako lana eta egutegia hankaz gora jarri du COVID-19ak.

Larrialdi egoeran pasa ditugun hilabete hauetan emanaldi ugari geratu dira bidean. Olite, Comillas edo Irun ziren Alboka Abesbatzako ahotsek alaitu behar ziztuzten herrietako batzuk. Gainera, bisita berezia ere jaso behar zuen ekain hasieran, Italiako San Salvatore

abesbatzarena. Elkartruke guztietarako hitzordua jartzeko lanean ari da berriro ere Abesbatza eta egoera *normaltzen* den heinean datak zehazten joatea espero du.

Herrian ere ohitura handia duten hainbat ospakizunetan parte hartzekoa zen Alboka abesbatza eta pena handia dute San Joan suan eta San Pedro

egunean abestu ez izanaz. "Erketz eta Zero Setterekin San Juan Suan parte ez hartzeak ere pena handia eman digu eta zer esanik ez inoiz huts egin ez dugun San Pedro eguneko mezan".

**Egoerara moldatzea eta erronkak** Alboka abesbatzako kideek lanean jarraitu dute, ordea. Larrialdi egoerak eta ziurgabetasunak astez aste egoerara moldatzera behartu ditu kideak, haien zaleetasunari jarraipena emateko. "Egoera horrek sortu duen estresa arintzeko" ere balio izan duela onartu dute zuzendaritzako kideek.

Entsegu era ezberdinak uztartu dituzte eta egoera normal batean oinarritzea den bakarkako lanak garrantzia gehiago izan du. Izan ere, astelehen eta ostegunetan entsegu gelan 40 bat pertsona elkarrekin egotetik, etxean bakarka egotera igaro dira.

"Hasieran zuzendariak grabatutako bideo txikiekin lantzen genituen kantak", azaldu dute. WhatsApp talde berezia sortu eta entsegu egunetan Montse Latorre zuzendariak bideoak bidaltzen zizkien kideei entseguen erritmoa eta ohitura ez galtzarren.

Ikasketa prozesua hain astuna ez izateko, erronka txikiak ere egin dituzte. Era honetara, beste hainbat kultur taldeek etxealdia arindu eta alaitzeko asmoz egindako bideoak animatuta, bi abesti grabatu zituen herriko abesbatzak, *Let it Shine* eta *Martxa baten lehen notak*.

"Bakoitzak bere etxetik bere zatia grabatu zuen, eta gero teknologiari esker dena bateratu. Bestalde, teknologiarekin

kontaktu handia ez duten pertsoneri oso zaila egin zaie grabaketa hauek egitea. Baina askok lortu dute! Ez da elkarrekin abestea bezala, baina esperientzia oso polita izan da", adierazi dute zuzendaritzako kideek.

Grabaketak oso baliagarri izan zaizkiela ere nabarmendu dute, "Bideo hauek egiten asko ikasi dugu, grabatzerakoan norberaren ahotsa entzutea zaila baina era berean aberasgarria izan da, benetan konturatu garelako bakarrik nola kantatzen dugun. Baina hobetzeko ezinbestekoa da".

Arintzen egoeran zehar, berriro ere elkarrekin egoteko prestatzen hasi ziren eta Osasun Sailak eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak egindako protokoloa jarraituz ekaineko bigarren astean berriro entseguekin hasi ziren.

Moldaketa ugari egin behar izan dituzte. Lehenik, ohiko entsegu lekua aldatu behar izan dute, Mirentxutik San Pedro elizara. "Gure arteko distantziak hobeto mantendu ahal izateko", nabarmendu dute.

Gainera, talde txikietan hasi ziren lanean eta "normaltasun berria" ezartzearekin batera pixkanaka taldea handitzen joan da, abesbatza osoa batu arte.

Eta noski, maskararekin edo pantailekin abestera ohitu behar izan dira kontzertua prestatzeko izan duten hilabete eskas honetan.

Aste honetan azken ukituak eman dizkiete egitarauko doinuei San Pedro elizan. Alboka Abesbatzako kideek ilusio handiz eskainiko diete herritarrei "normaltasun berriko" lehen kontzertua.



Alboka Abesbatza 2018-2019 ikasturte amaierako kontzertuan. Aurten San Pedro elizan izango da emanaldia. TXINTXARRI



# "Kontaktua beharrezkoa da dantzetan"

## ERKETZ EUSKAL DANTZA TALDEA

Erketz EDT taldeko kideek hiru hilabeteko etenaren ostean, San Pedro eguneko mezan egin zuten dantza. Urrira arte, behintzat, ez dute emanaldirik eskainiko

### Nerea Eizagirre

San Pedro egunean, Erketz EDT dantza taldeko kideek San Pedro elizan egin zen meza nagusian *Agurra* dantzatu zuten. Zapore gazi-goza utzi zien ekitaldiak dantza taldeko kideei. Aurten ezin izan diote ohi bezala ikasturteari amaiera eman, baina urrian emanaldia prestatzeko asmoa dutela aurreratu dute. **Ikasturte amaierako dantzaldia eta San Joan suko Soka-dantza ezin izan dituzue egin. Pena izan da zuentzat?**

Noski, guretzat bi ekitaldi hauek urteko ekitaldi garrantzitsu eta politenak dira. Lehena gure urte osoko lana plazaratzeko eguna izan ohi da, Erketzkoentzat egun handia, non irriak, poza, malkoak, urduritasunak... Partekatuta eta azaleratzen diren. Urte osoan lanean aritu ondoren, herritarrei, Euskal Herrian dantza ezberdin asko daudela erakusteko unea ere izaten da. Azkenean, ikasturtea biribiltzeko emanaldia da



Erketz EDTko kideak 2019ko ekainean egindako emanaldian. TXINTXARRI

guretzat, eta datorren urtean berriz hasteko indarrez betetzen gaituena.

San Joan suko Soka-dantza, aldiz, jada ohitura bihurtu den dantza da herrian, eta oso eskertua gainera publikoaren aldetik. Gau magikoa dela diote, eta aurten ezin ospatu izanak tristuraz betetzen gaitu. Gau honek herriko beste elkarte

batzuekin plazaratzeko aukera ere ematen digu, Zero Sette eta Albokarekin hain zuzen ere, non beraien laguntzarik gabe oso zaila izango zen ekitaldi hau aurrera eramatea. Ezin ahaztu egun honetako partehartzea irekia dela, eta orotariko herritarren parte hartzeak azken ukitua ematen diola emanaldiari borobila izan dadin.

### Noiz hasi ohi zarete emanaldi horiek prestatzen?

Normalean urri hasieran hasten gara ikasturtea antolatzen, lehen bilerak, entseguak... Hala ere, urte batzuk bereziak izaten dira, aurtengoa bezala Euskararen Maratoia dela eta. Emanaldi hauek prestatzeko aurreko ikasturtea luzatu ohi dugu, eta emanaldi hauek gauzatzean berriarekin hasten gara.

Ekitaldi bakoitzaren atzean, ematen ez badu ere, lan ikaragarria dago. Gure kasuan, ikasturte hasieran, urtean zehar zein emanaldi izango ditugun aurreikusten du batzorde teknikoak, eta horren arabera dantza batzuk prestatzen dira urtean zehar ikasten joateko. Beraz, dantzen ikerketa txiki bat eta prestaketa-plangintza, musika moldaketa, jantzien konponketa eta txukunketa... eskatzen dute, lan handia azken finean.

### Itxialdiak zer suposatu du Erketzentzat? Nola moldatu zarete entsaiatzeko?

Martxoaren 12an entsegu guztiak bertan behera uztea erabaki genuen, eta egoera aldatzen zihoan heinean aktibitateari berriro helduko geniola. Bitartean, etxean entsaiatzeko dantzen bideoak prestatu ziren, erritimoa ez galtzeko.

Hala ere, gure kasuan dantza asko taldekako dantza direnez, eta material desberdina erabiltzen denez, ezinezkoa egin zaigu konfinamenduan dantza hauek aurrera eramatea.

Alarma egoera sartu zenetik entsegurik egin gabe jarraitzen dugu. Egia da orain taldean egon daitekeela, baina ezin ditugu segurtasun neurriak ziurtatu, kontaktua beharrezkoa baita dantzetan. Hori dela eta, entseguekin oraindik ez hastea erabaki dugu, osasuna gailenduz. **Entseguekin irailan hasiko zarete, orduan?**

Gure asmoa urri aldera emanaldi bat plazaratzea da, ikasturte berezi hau amaitutzat emateko, baina ikusi beharko da hori aurrera eramateko baldintzak betetzen diren. Horretarako, entseguekin abuztu amaieran edo hasia da asmoa.

### Baina entsegurik egin ez arren, larrialdi egoeran ez zarete geldirik egon...

Uneoro alternatibetan pentsatzen aritu gara, eta esaterako, bideo bat prestatu genuen konfinamendua arinago igarotzeko.

Bideo honetan Erketz osatzen duten hiru taldeek parte hartu zuten: Erketz E.D.T., Erketz Lagunak eta Erketz Txikik; eta 50. urteurrenoko flashmob-ean egin zen koreografia egitea pentsatu zen une haiek berriz ere gogorarazteko.

### Zer esan nahiko zeniekete herritarrei?

Lehenik eta behin espero dugu egoera normalizatzen eta birus hau desagertzen joatea. Eta herritar guztiei animoak bidal inahi dizkiegu Erketz E.D.T. osatzen dugun guztion partetik.

# "Batzordeak ez du ekintzarik egingo"

## JUAN RODRIGUEZ ORIAKO JAI BATZORDEKO KIDEA

Lasarte-oriatarrek ez dituzte Oriako Karmengo Jaiak eta Basaundiko saninazioak ospatuko aurten. "Jarduerarik antolatzekotan, udalak egin beharko luke"

### Iñigo Gonzalez Sarobe

Juan Rodriguez herritarra da Oriako jai batzordeko kideetako bat. Berarekin hitz egin du TXINTXARRI-k herriko bi auzo horietako jaien inguruan.

### Ospatuko al ditugu karmenak eta saninazioak aurten?

Egoera ikusita, batzordeko kideok erabaki dugu ekintzarik ez egitea.

Udaleko jai batzordearekin bildu ginen eragileak ekainaren 17an, eta guk espreski galdetu genien ea norena izango zen erantzukizuna zerbait gertatuz gero. Esan ziguten gure gain egongo litzatekeela aurrena, eta gero udalaren gain. Guk ez dugu ekintzarik egingo. Gure ustez, udalak antolatu behar luke zerbait karmenetan eta

saninazioetan, laguntza instituzionala funtsezkoa da. Ikusi dugu Okendon eta erdigunean jarduerak egiten ari direla. Orian ere antolatu daitezke horrelako ekintzak, are gehiago aurten, egoera berezi hau dela eta. Deszentralizazioaren alde dagoela dio udalak, baina hori erakutsi egin behar da gero.



Sorgin Dantza izan ohi da Karmengo Jaien ekintzetako bat. TXINTXARRI

### Datozen hilabeteetan ekintzarik egitea aurreikusten duzue?

Uztailaren 16an, Karmengo Amaren egunean, meza egingo da, baina ez da gure ideia izan; ekimen pribatua da. Datozen hilabeteetan ekintzarik egitea ez dugu aurreikusten. Diru partida bat gorde du udalak: 40.000 euro, eragile guztion artean banatzeko.

Espero dut egoerak balio izatea auzotarrek ikusteko zeinen garrantzitsuak diren jaiak. Batzordea osatzeko arazoak dauzkagu; pertsona batzuek laguntzen digute kanpotik, baina kide gazteena ni naiz. Uztailko egun horietan jai-ekintzarik ez ikustean, ea konturatu eta parte hartzera animatzen diren.



# Iraia Iparragirre, zelaian lanean hasteko gogotsu

Bi urteko kontratu berritza sinatu du Lasarte-Oriako jokalaria. Zalantza betetako denboraldi berriari begira, Natalia Arroyo Realeko entrenatzaile berriren konfiantza lortzen saiatuko da herritarra, ahal dituen minutu gehienak jokatzeko

## Nerea Eizagirre

Iraia Iparragirre Argandoñak (Lasarte-Oria, 1995) bi urtez berri du kontratua Real Sociedad taldearekin. 2020-2021 denboraldia seigarrena izango da herritarrentzat eta ziurgabetasunez eta berrikuntzaz beteta datorrela nabarmendu du herritarrek, TXINTXARRI-rekin izandako solasaldian.

Iparragirre pozarren dago kontratua berritzearekin. "Ez du inork horrelako pribilegioa. Urte hauetan egin dudana bezala, pertsonalki hazten jarraitzeko aukera da. Talde bezala, taldeari mesede egin ahal diezaioketen trebetasunekin nire aletxoak jartzeko saiatuko naiz", adierazi du.

## Entrenatzaile berria

Hainbat berrikuntzari aurre egin beharko die aurtengo denboraldian. Esate baterako, Real Sociedad taldean hainbat aldaketa izan dira azken hilabetetan, nabarmenena Gonzalo Arconada entrenatzailearen agurra izan da.

Arconadak hiru denboraldi egin ditu taldea zuzentzen eta 2019 urtean Erreginaren Kopa lortu zuen. Orain, Realaren talde teknikoan egongo da lanean. Bere lekua Natalia Arroyo Kataluniako selekzioaren entrenatzaile eta Barcelona eta



Iraia Iparragirre herritarra, derbiko kornu batean lehiatzen. REAL SOCIEDAD

Espanyoleko jokalaria ohiak beteko du.

"Oso pozik nago entrenatzaile berria etorri delako. Niri beti eman dit pena denbora luze entrenatzaile izan ditudan pertsonak joatea. Baina futbola horrelakoa da eta egoera guztietara moldatu behar zara", azpimarratu du Iparragirrek.

Hala ere, lan gogorra izango du aurretik herritarrek. "Entrenatzaile berria datorrenean, borroka egoten da jokalarien artean. Azkenean denok nahi dugu jokatu eta geroz eta zailago dago hamaikakoan

hasieratik aritzea", adierazi du jokalaria lasarte-oriatarrek.

Horregatik, Arconadak beregan jarritako konfiantza eskertu du eta Arroyoren hamaikakoan egoteko lan egingo duela ere nabarmendu du Realeko defentsak. "Gauzak ez dira errazak izango, baina ez dira egon inoiz. Ni pertsonalki hazten noan heinean ere, horrek borrokatzeko gogo gehiago ematen dizkit. Ikusiko da aurrerago entrenatzen goazen heinean, minutuak jokatzeo aukera daukadan. Oraindik ezin da jakin. Ni oso gogotsu nago".

Iparragirrek ez du entrenatzaile berria ezagutzen baina "berari buruz ongi hitz egin didate", onartu du. Arroyo futbol jokalaria ohi izatea taldearen onurako izango dela uste du herritarrek: "Jokalaria ohi bezala enpatia hori izan dezake gudan, badakielako zer den egoera horretan egotea eta horrek elkar ulertzeko erraztasun gehiago eman ahal diezazkiguke".

Balio erantsi bat ere badu, Iparragirreren ustetan, emakume izatea. "Emakume bezala, borroka honetan, gero eta emakume gehiago ikusten direnez entrenatzaile lanetan, pozik nago zentzu horretan". Entrenatzaile berriak "aldaketa txikiak" egitea ere oso motibagarria da jokalaria txuri-urdinarentzat.

## Jakinarazpenen zain

Real talde sendoa osatzen ari da hurrengo denboraldira begira, baina Lasarte-Oriako jokalaria aitortu duenez, oraindik zalantza asko dago Iberdrola Ligaren hasierari buruz, "ez dakigu noiz hasiko den, ez zer pasako den...".

Ondorioz, Realak oraindik ez die jakinarazi denboraldi-aurreko entrenamenduak noiz hasiko dituzten. "Liga hasierako data zehazten denean, taldeek denboraldi-aurrea noiz egin finkatuko dute".

Iparragirre gogoz itxaroten ari da momentu hori: "Gogoz nago berriro ere Zubietan entrenatzen hasteko. Etenaldi luze hau gogorra egiten ari da. Ohituta geunden egunero entrenatzera eta hainbeste hilabetez entrenamendu bat ere egin ez dugula ikustean faltan botatzen da".

Aurtengoa urte bitxia izaten ari dela ere nabarmendu du

herritarrek. "Denboraldia bertan behera utzi zenean pena handia izan genuen. Egoerak erabaki horiek hartzea eraman zituen. Orain, pixkanaka ikusiko da egoerak zertara eramaten gaituen eta neurriak jarraituz, ea ahalik eta azkarren hasten garen Zubietan entrenatzen eta harreman hori edukitzen".

## Profesionaltasuna

Parekidetasunaren alorrean pausoak ematen ari dira ere Iberdrola Ligako taldeak. Otsailean, lan hitzarmena sinatzea lortu zuten.

"Mutilen eta emakumezkoek ezberdintasuna pixkanaka gutxitzen joatea eta duintasun baten guri ere behar bezalako izena ematea nahi dugu", aldarrikatu du Iparragirrek.

Lan hitzarmenak jokalarien egoera hobetu duela onartu du Iparragirrek. "Larrialdi egoera hasi aurretik, lan hitzarmena lortzeak mesede handia egin digu eta prekaritate egoeratik ateratzeko oinarria lortu dugu. Baina hor ez da bukatzen. Gu oraindik ez gaituzte profesionaltzat. Triste da, honetan %100 jarduten garela".

Horregatik, maiatzean klubek elkarteak eta sindikatuek ligaren profesionaltasuna eskatu zioten Espainiako Kirol Kontseilu Gorenari. Erakundeak ez du erantzunik eskaini, Espainiako futbol federazioak, ordea, bai: estatutuak aldatu eta, ekain hasieran, profesionalizatu bezala kontsideratu du.

"Liga hasiera honetan zer gertatzen den ikusi beharko da, guztia airean dago eta. Babestuago sentitzen gara, gutxietsi gaituzte eta balioa eman digute, baina ikusi beharko da", nabarmendu du herritarrek.

## Buruntzaldea IKTko igerilariak denboraldia agurtu dute itsasoan

Hurrengo denboraldian taldeko kide izateko izen-ematea martxan du igeriketa taldeak

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak 2019-2020 denboraldiari agur esan diote. Aurtengoa ez da ohiko denboraldi amaiera izan herriko taldeko

igerilariarentzat. Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan entrenatu ahal ezin zirenez, entrenamenduak moldatu eta maiatzaren 29tik itsasoan egon dira lanean. Uztailaren 3an, ostiralean,

guztiak batera igeri egiten denboraldia amaitu dute.

## Izen-emateak martxan

Buruntzaldea IKT hurrengo denboraldia prestatzen hasi da eta kide izan nahi duten herritarrek izena emateko aukera dute. Inskripzioa taldearen webgunean egin behar da. Informazio gehiago eskuratu nahiez gero, 696 506 632 telefono zenbakira deitu edo [info@buruntzaldeaikt.eus](mailto:info@buruntzaldeaikt.eus) helbide elektronikora idatzi behar da.



Buruntzaldea IKTko igerilariak denboraldi amaierako saioaren ostean. BURUNTZALDEA IKT



# "Asteburu txarra" Euskotren Liga hasteko

Donostia Arraun Lagunak taldea azkena izan da A Coruñako III. banderako jardunaldietan; Oriok eraman du saria etxera. Aiora Belartietak kide duen eskifaiak larunbatean du arantza kentzeko aukera, Donostian jokatu den Caixabank banderan

## Nerea Eizagirre

A Coruñan, Galizia, eman zaio hasiera Euskotren Ligari. Donostiarrak, Hondarribia Bertako igogailuak eta Donostia Arraun Lagunak taldeko kideek Oriok koroa kendu nahi diote. Baina ez dute lan erraza izango, oriotarrak III. Bandeira Cidada da Coruñako bi jardunaldietan nagusi izan eta etxera eraman baitzuten bandera.

Aiora Belartietak Galardi (Lasarte-Oria, 2002) herritarrak Donostia Arraun Lagunak taldean egingo du bere bigarren denboraldia. Asteburuan ezin izan zen A Coruñan egon bere traineruan, astelehenetik asteazkenera Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE) baitzuen, baina telebistaren bitartez jarraitu zuen lehia. Donostia Arraun Lagunak trainerua azkena izan zen jokatu ziren bi jardunaldietan.

Donostiako taldeak ez zuen horrelako hasiera espero. "Aurreko asteburuan egun txarrak izan ditugu, astean zehar egindako entrenamenduekin konparatuz", adierazi du Belartietak.

## Denboraldi-aurre falta

Larrialdi egoeraren ostean, ekainaren 8an hasi ziren lanean uretan Donostia Arraun Lagunak taldeko kideak. Aurten ez dute denboraldi-aurrerik izan eta A Coruñako urteko lehen proba zuten. "Denboraldi-aurrerik ez egotea kaltegarria izan da, baina neguan egindako lan onaren ondorioz azkar harrapatu dugu erritmoa", azpimarratu du Belartietak.

Izan ere, hiru hilabetez etxean bakarka entrenatu baitira taldeak utzitako ergometroei esker. Gogorra egin zaio lasarte-oriatarrari. "Konfinamenduan sartu baino bi egun lehenago, taldekide bakoitzak ergometro bat eraman zuen etxera. Bakarrik



Aiora Belartietak eta Donostia Arraun Laguneko kideak iazko jardunaldi batean. A. ARRIZABALAGA

entrenatzea oso gogorra izan da bai fisikoki eta baita psikologikoki ere".

## Denboraldi parekatua

A Coruñatik Zarautzera, Euskotren Ligak aurten hamabi jardunaldi izango ditu. Hilabetez, astebururo, lau traineru izango dira ligako garaikurra eskuratzeko lehian: Donostia Arraun Lagunak, Donostiarrak, Oriok eta Hondarribia Bertako igogailuak.

Ez da hori jokoan izango den gauza bakarra, Ligako azken sailkatuak maila jaitziera jokatu beharko baitu. Irailean, Bermeo eta Portugaleten jokatu dira jardunaldiak eta ETE Ligako bi eskifaia hoberenen aurka egin beharko du puntu gutxienez eskuratzen duen traineruak.

Oriok eraman zuen iaz saria eta aurten bere hautagaitza erakutsi du A Coruñako bandera irabaziz. Hala ere, Belartietaren ustetan, eskifaian arteko maila parekatua da. "Ligako lehenengo asteburuan Oriok irabazi du bandera, baina, orokorrean, traineruen maila nahiko parekatua dagoela dirudi".

Hori dela eta, denboraldian zehar, lehia handiak ikusteko aukera egongo dela aurreratu du eta Oriok ez ezik, beste eskifaiek ere banderak lortu ahalko dituztela nabarmendu du. "Estropada on bat eginez gero, denok izango dugu bandera irabazteko aukera".

Donostia Arraun Lagunak taldea txapelketaren ondoren izan zen Euskotren Ligan eta aurten ere aurrean egotea espero du. "Gure helburua zenbat eta bandera gehien lortzea da eta liga txukun bat egitea", adierazi du herriko arraunlari gazteak. Eta denboraldi honetan erakusteko asko dutela nabarmendu du.

Belartietaren traineruak asteburu honetan izango du aukera ederra denboraldiko lehen bandera eskuratzeko. Larunbatean, Donostiako uretan lehiatuko dute V. Caixabank banderan. Donostia Arraun Lagunak traineruak ongi ezagutzen duen eremua da eta bere hautagaitza erakutsi dezake bertan. Igandean, berriz, Zierbanan izango dira IV. Petronor bandera lehiatzen.



Jon Pello Artetxe, Santiago txapelketako final-laurdenean. AIURRI

## Intzako pilotariek itzulera gazi- gozoa izan dute txapelketetan

Profesional mailan, Arteagak eta Oier Etxebarriak ezin izan zuten garaipena erdietsi Ibai Zabala eta Elordiren aurka

## Txintxarri

Intza elkarteko kideek ez dute hasiera erraza izan. Villabonako Santiago txapelketan eta Hernaniko Zikuñaga txapelketan txanponaren aurkia eta ifrentzua bizi dute.

Jon Pello Artetxe seniorra Santiago txapelketatik kanpo geratu zen uztailaren 2an. EPLEko Odriozola lagun, Eskudero eta Urruzolaren aurka jokatu zuten final-laurdena eta Odriozolaren lesioa medio, ezin izan zuten Gazteleku eta Pagazpe elkarteko kideek osatutako bikotea garaitu.

"Guk lehen aldia genuen elkarrekin jolasten eta Eskudero eta Urruzola ongi ezagutzen dute elkar. Urruzola, gainera, profesional bezala aritu da", azaldu digu Artetxek.

Partida hasieratik nabaritu zen bi bikoteen arteko aldea eta 1 eta 5eko markagailuan zela, Odriozolak belaunean min hartu zuen. "Pena handia dut Odriozolaren lesioagatik", onartu du herritarrak.

Hortik aurrera, arerioek bidea libre izan zuten garaipena eskuratzeko. 3-22 izan zen azken emaitza. Atzo arratsaldean pasa den asteko osteguneko porrota ahazteko aukera izan zuen herritarrak. Hernaniko Zikuñagako Txapelketaren bigarren edizioan.

Intxurre elkarteko Irazustabarrenarekin bat eginez Gelis-Aranguren EPLEko bikote izan zuen arerio. Edizioa itxi baino lehen ezin izan dugu emaitzarik jaso.

Urdanpilleta kadetea, berriz, bide ederra egin ari da Hernaniko txapelketan. Manterola hernaniarra bikote duela bi garaipen eskuratu ditu herritarrak.

Uztailaren 4an, 18-4 garaitu zituzten Arabaolaza eta Martin. Asteazkenean, berriz, Arluziaga eta Alegriaren aurka partida borrokatuagoa jokatu behar izan zuen bikoteak. Azkenean, 13-18 irabazi zuten.

## Arteagaren porrota

Profesional mailan, berriz, Axier Arteagak ezin izan zuen garaipena errepikatu uztailaren 4an, Zaldibarren jokatuaren partidaren. Duela astebete Zeanurin lehiatutako lau jokalariek berritako batu ziren kantxan; oraingoan, ordea, lasarte-oriatarrak estreinakoz ASPEko Oier Etxebarriekin batera jokatu zuten Masters Caixabank txapelketako aurretiko partida.

Ibai Zabala eta Elordi izan zituzten aurrez aurre eta bikote bizkaitarra gailendu zitzaizkien, 22-14. Partida berdindua zirudien arren, 13-13koaren ostean partida hautsi zuten Zabalak eta Elordik eta tanto bakarra egin ahal izan zuten Arteaga II.a herritarrak eta Oier Etxebarriak.

Astelehenean, uztailaren 13an, garaipenaren bidea itzultzeko aukera izango du herritarrak. Erasan bikote kide duela, Dario eta Untoriaren aurka jokatu du partida 16:30etik aurrera. Tolosako Beotibar pilotalekuan.



# Zaleak Hipodromora bueltatu dira

Uztaileko lehenengo jardunaldian, udako denboraldiko seigarrenean, publikoari atea zabaldu dizkio Donostiako Hipodromoak. Protokolo bat garatu du lasterketak ikustera joan nahi duten pertsonentzat. Hurrengo jardunaldia hilaren 19an izango da, igandez

## Txintxarri

Azkenaldian baino mugimendu gehiago egon zen pasa den asteko ostiralean Donostiako Hipodromoan, uztaileak 3. Udako denboraldia hasi zenetik, soilik profesionalak eta kazetariek sartu ahal izan dute lasterketak ikusi eta kubritzera, COVID-19a gehiago zabaltzea saihesteko neurri gisa. Aldatu egin da hori uztaile iristearrekin batera, hilabete horretako aurreneko lasterketa egunean zaleek sartu ahal izan dutelako egoitzara, arduradunek diseinatutako protokoloa beteta, hori bai. Esate baterako, edukiera maximoa 1.000 pertsonara mugatu dute. Harmailetan ezinbestekoa da metro eta erdiko distantzia soziala mantentzea, maskarak jantzita eramatea uneoro, eta jardunaldiko lasterketa guztiak amaitu bitartean ez da posible norberaren eserlekua utzi eta beste nonbait jesartzea.

Harmailak beteago ikusten ziren ostiralean, zenbait zalek

aukera baliatu zutelako zaldi lasterketez gozatzeko. Bost proba jokatu ziren uztailearen 3an; sari nagusia azkena izan zen, Donostia Turismoa, 2.000 metrokoa. *My Flinders* behorra izan zen bizkorrena, J.L. Martinez jockeyak gidatutakoa. *Gnily* eta *Hold On Now* izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

## Hurrengo, hilaren 19an

Asteburu honetan ez da zaldi lasterketarik jokatu Hipodromoan. Hurrengo hitzordua hilaren 19an izango da, igandearrekin. Kontraktorik iragarri ezean, zaleentzat ezarritako protokoloa bere horretan mantenduko da orduko

## URREZKO KOPAREN 52. EDIZIOA ABUZTUAREN 15EAN JOKATUKO DA, LARUNBATAREKIN

zita horretan ere. Astebete barru, uztailearen 26an, Gipuzkoako Foru Aldundia saria jokatu da.

Abuztua probaz beteta dator. Hilaren 2an, igandearrekin jokatu da udako sasoiko bederatzigarren jardunaldia. Hamargarrena berriz, astebete beranduago, abuztuaren 9an. Eta 15ean, larunbatez, zaleen hitzordu gogokoenetako bat, kuttunena ez bada: Urrezko Kopa. Aurtengoa 52. edizioa izango da, berezia oso, bizi dugun egoeragatik. Abuztuko azken aurreko astean beste bi hitzordu: 23an, igandez, Eusko Jaurlaritzara saria. Hiru egun beranduago, 26an, asteazkenarekin, udako hamahirugarren jardunaldia jokatu da.

Irailen ere izango dute zaleek aukera lasterketez gozatzeko. Grupo Carrus saria jokatu da 2an, asteazkenez, eta Donostia Saria astebete beranduago, irailaren 9an.



Zaleek lasterketez gozatu dezakete, zenbait neurri beteta. ISAAC FARRE



Bost lasterketa jokatu ziren Hipodromoan uztailearen 3an. ISAAC FARRE

## Texas Lasartearrak nesken taldea atera nahi du hurrengo sasoian

Herriko kirol elkarte eta klubek buru-belarri dihardute 2020-2021 denboraldia prestatzeko lanetan

## Txintxarri

Texas Lasartearra futbol klubak nesken talde bat atera nahi du 2020-2021 denboraldian. Hori dela eta, 2012. urtean baino lehenago jaio diren herritarrei deia egiten die eurekin harremanetan jarri eta informazioa eskatzeko. Zenbait bide jarri ditu horretarako: 647 936 196 telefono zenbakia eta [info@txaslasartearra.com](mailto:info@txaslasartearra.com) helbide elektronikoa. Egitasmo horrez gain, harrobiko beste talde batzuk osatzeko lanean ari da. Are, Michelingo zelaian entrenatzen hasi da honezkerok.

Ostadar SKTko zenbait sailek -futbola, saskibaloia eta boleibola- behin betiko izen-ematea egiteko epea ireki zuten uztailearen 1ean, eta bihar arte mantenduko dute irekita. COVID-19a tarteko, Internet bidez ari dira kirolariak bilatzen datorren ikasturterako, eta Geltoki kaleko bulegoa ere ireki dute honezkerok. Atletismo sailak txokoak antolatu ditu kirolari gazteentzat, hilaren 6an hasi eta 30era arte. Michelingo kirol guneko pistan egingo dituzte saioak, astelehen, asteazken

eta ostegunetan. Egun bakoitzean ordubeteko saioak egingo dituzte, eta txandak parte-hartzaileen adinaren arabera antolatuko. Ez da Ostadarreko atletentzat bakarrik, interesa duten guztientzat baizik.

## Eguzki, taldeak osatzen

Eguzki Areto Futbola kluba ere lanean ari da. 2012an edo lehenago jaiotako herritarrek gonbidatzen ditu eurekin kirola egitera. Gaztetxoentzako kirol eskolatik hasi eta seniorretaraino, kategoria guztietan taldeak osatu nahi ditu Eguzkiak. Beraiekin harremanetan jartzeko bi bide dituzte interesa duten herritarrek: 699 420 239 telefonora hots egin edo [eguzkiaretofutbola@outlook.com](mailto:eguzkiaretofutbola@outlook.com) helbide elektronikora idatzi.

## Udako udal kirol jardueretan izena eman daiteke

Uztailearen 13tik abuztuaren 6ra bitartean egin ahalgo dira jarduerak, Maialen Chourraut kiroldegian

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udako Kirol Zerbitzuak hainbat jarduerak prestatu ditu aurtengo udarako. Izena emateko epea irekita dago honezkerok. Interesa dutenek Maialen Chourraut kiroldegira deitu beharko dute, 943 376 182 telefono zenbakira.

Hauek dira kirol zerbitzuak antolatu dituen ekintzak: indoor txirrindularitza, tonifikazioa, pilates eta bodyzunba. Goizez zein arratsaldez egingo dituzte saioak. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, protokolo zehatz bat

diseinatu dute jarduerak horietan parte hartuko duten lasarte-orientarrentzako. Partaide bakoitzari esplikatu diote neurri-sorta hori zertan den, eskaintako jardueraren batean izena eman duela baieztatu eta berehala.

Kirol zerbitzuak pixkanaka ireki ditu bere jabetzako kirol instalazioak, konfinamendua arintzen hasi eta aste batzuetara. Maialen Chourraut kiroldegiko zenbait gune ekainaren 8tik daude erabilgarri, eta, igerilekua, hilaren 15etik.



## ZORION AGURRAK



**Aimar**  
Zorionak txapeldun!  
Dagoeneko 6 urte bete dituzu. Asko maite zaitugu. Muxuak. Zure gurasoak.



**Oscar**  
Zorionak bollikau!  
Ez gara zure urtebetetze egunaz ahaztu, e!  
Biruxak joatean, gonbidatuko gaituzu pinbo-pote batera, ezta?  
Egun politt-politta pasa izana espero dugu! Muak!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

### Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.


### Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


### Ostirala, 10




### Larunbata, 11




### Igandea, 12




### Astelehena, 13




### Asteartea, 14



### Asteazkena, 15



### Osteguna, 16



## JAIOTAKOAK

**Maddi Adin Otaegui.** Uztailaren 1ean.

## HILDAKOAK

**Juan Mari Etxezarreta Etxeberria.** Uztailaren 9an.

**Antoni Iturru Ikutza.** Uztailaren 5ean.

**Maria Loreto Santos Santos.** Uztailaren 4an.

**Jesus Mª Garcia Mijangos.** Uztailaren 4an.

**Estanislao Martin Romeo.** Ekainaren 30ean.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**OSTIRALA, 10** ACHA-ORBEA  
**LARUNBATA, 11** URBISTONDO  
**IGANDEA, 12** URBISTONDO  
**ASTELEHENA, 13** LASA  
**ASTEARTEA, 14** GANDARIAS-URIBE  
**AZTEAZKENA, 15** DE ORUE  
**OSTEGUNA, 16** DE MIGUEL

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 8 |   |   | 9 |   | 2 |   |   |
|   |   |   |   | 8 |   |   |   |   |
| 9 |   | 2 | 5 | 4 | 1 |   |   |   |
| 3 | 6 | 7 |   |   | 5 |   |   |   |
|   |   |   |   |   | 6 | 3 |   |   |
| 5 |   | 1 |   | 3 |   |   | 6 | 2 |
| 7 |   | 8 |   | 5 |   | 9 |   |   |
|   |   | 6 | 7 |   | 9 | 8 |   | 4 |
|   |   | 9 |   | 6 | 8 |   | 1 |   |

## OHARRAK

### Liburuen bigarren eskuko azoka, Oriarte BHI

Oriarte Institutuko Oriartekide guraso elkarteak, familiek 2020-2021 ikasturteko liburuak erosi ahal izateko DBH3 mailatik 2. Batxilergo mailarako liburuen bigarren eskuko azoka antolatuko du, Oriarte institutoko Larrekoetxe eraikinean.

DBH3, DBH4 eta 1. Batxilergo mailatako liburuak uztailaren 1ean eskuratu ahal izan eta gero; 2. Batxilergoko liburuak, uztailaren 17an, 16:00etatik 17:30era erosteko aukera izango dute hurrengo ikasturtean maila hori egin behar duten hurrengo familiek.

Liburuak saldu nahi dituzten familiek uztailaren 15ean, 16:30etik 18:00etara eraman behar dituzte Oriarteko Larrekoetxe eraikinera.

Liburuek egoera onean egon beharko dute, "puskatu gabe, eta erabilgarri." Guraso elkarteak egiaztatuko du liburuen egoera.

Guraso elkarteak jakitera eman duenez, liburuak gaur egun duten prezioaren erdian baloratuko dira.

### Eskuratu 1.000 euro

Aterpea merkatarien elkarteak abiatu du aurtengo Eskuratu 1.000 euro! kanpainaren edizio berria. Orain arteko kanpainetan 1.000 euroko saria zozkatu dute, baina oraingo honetan, 3.000 euro banatuko dituzte 1.000, 500 eta 250 euroko erosketak-bonuetan. Zozketan parte hartzeko, bezeroek uztailaren 6tik 18ra kontsumitu beharko dute kanpainara atxiki diren establezimenduetan. Parte hartze data horiek pasata, zozketa uztailaren 22an egingo dutela iragarri dute: Villa Mirentxun. 1.000 euroko sariaren irabazleak 10 euroko 100 bonu jasoko ditu, baina zenbait baldintza bete beharko ditu horiek gastatu ahal izateko; Aterpeko dendetan gastatu beharko ditu, uztailaren 29an, eta 17:00etatik 20:00etara. Jakinarazi dute baita ere, ezingo dituela 10 bonu baino gehiago erabili establezimendu berean.

### Euskara ikasteko bekak

2019-20 ikasturtean euskara ikasten aritu diren ikasleek udalak ematen dituen bekak eskatzeko aukera izango dute uztailaren 17ra arte. Dagokion ikastaroa euskaltegi batean bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu behar izaten dute interesatuek eskaera, baina ikasturte honetan euskara ikastaroren bat hasi eta 2020ko otsailaren 29tik aurrera ikastaroa bukatu dutenek Lasarte-Oriako Udalarri diru-laguntza eskatzeko epea data horretara luzatu du udalak. Covid-19ak sortutako egoera dela eta hartu dute neurri hori, herritarrei erraztasunak emateko asmoz. Jakinarazi dutenez, eskaera udaletzeko erregistroan aurkeztu nahi dutenek eta alde aurreko hitzordua eskatu dutenei ezin izan diete zehaztutako epeetan erantzun.

Eskaera on-line ere egin dezakete, interesatuek, udaleko web orriko "Idatzi eta dokumentuen sarrera" botoian klikatuta.



**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### LANA

#### ESKARIA

Lasarte-Oriako bi neska gazte gara; udaran haurrak zaintzeko prest gaude. Hurrek udaran eskolako errefortzu lanak egin nahi balituzkete ere prest egongo ginateke laguntzeko. Deitu edo bidali whatsapp bat zenbaki hauetara: 688 777 280 edo 610 325 280.

Lan bila ari naiz Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila asteburuetarako Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

27 urteko neska euskalduna abuztuan haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Haur Hezkuntzan graduatua. Interesatuak deitu telefono honetara: 695 757 287.

Haurrak zainduko nituzke, irailetik aurrera,

ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

### ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN

Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. 943 376 115/615 645 126.

Etxea partekatzeko neska baten bila gabiltza. Interesatuok jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da lasarten bizi dan familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

### SALEROSKETAK

#### SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 300 euro. 646 824 466.



### EROSI

Bigarren eskuko ondo dagoen bizikleta hartuko nuke 3-4 urteko ume batentzat. 687 35 50 95.

### NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---------|----------|-----------|----------|
| 08:00   | 08:10    | 08:15     | 08:20    |
| 08:40   | 08:50    | 08:55     | 09:00    |
| 10:30   | 10:40    | 10:45     | 10:50    |
| 11:00   | 11:10    | 11:15     | 11:20    |
| 11:30   | 11:40    | 11:45     | 11:50    |
| 12:05   | 12:15    | 12:20     | 12:25    |
| 12:30   | 12:40    | 12:45     | 12:50    |
| 13:00   | 13:10    | 13:15     | 13:20    |
| 13:30   | 13:40    | 13:45     | 13:50    |
| 16:30   | 16:40    | 16:45     | 16:50    |
| 17:00   | 17:10    | 17:15     | 17:20    |
| 19:30   | 19:40    | 19:45     | 19:50    |
| 20:00   | 20:10    | 20:15     | 20:20    |

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,  
Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

#### Publizitatea

Iraiti Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

#### Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Erlantz Ezeiza, Igone Mendizabal  
eta Eneko Lanchas.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Kale Antzerkia.** Eloi Beatoren zuzendaritzapean, David Gutierrez eta Iñigo Salinero aktore gasteiztarrek eta profesional ugarik osatutako Gag Street Boys (GSB) antzerki taldeak bere lehen proiektua eskainiko dute. **Osteguna 16. Okendo plaza, 19:00etan.**

## OSTIRALA 10

**USURBIL Kultur Bira**  
Aginagako Eliza Zaharrea Oreka Tx bandaren proiektu berria eskainiko dute: *Koklea*.  
Aginagako eliza Zaharrea, 20:00etan.

## LARUNBATA 11

**LASARTE-ORIA Kontzertua**  
Alboka Abesbatzak ikasturte amaierako kontzertua eskainiko du. Edukiera mugatua. Maskara janztea derrigorrezkoa da.  
San Pedro elizan, 20:00etan.

**USURBIL Kultur Bira**  
Asier Kidam magoaren *Aroa eta mirariak* ikuskizuna.  
Aginagako eliza Zaharrea, 18:00etan.

## OSTEGUNA 16

**LASARTE-ORIA Kale Antzerkia**  
Gag Street Boys (GSB) antzerki taldeak bere lehen proiektua eskainiko du.  
Okendo plaza, 19:00etan.

**USURBIL Kultur Bira**  
Gartxoten kontzertua.  
Mikel Laboa plaza, 20:00etan

## OSTIRALA 17

**LASARTE-ORIA Dantza ikuskizuna**  
*Ikonografiak* dantza ikuskizuna Kresala dantza taldearen eskutik. XVI. Dantza Zirkuituko emanaldia da, mundu tradizionalaren ikuspegi berriztatua eskaintzen duen dantza obra berria.  
Okendo plaza, 19:00etan.

**USURBIL Kultur Bira**  
*Skratx* antzezlan.  
Alanoenea plaza, 19:00etan

**USURBIL Kultur Bira**  
Malen eta Maddi kontzertua.  
Aginagako eliza Zaharrea, 20:00etan.

## ASTEAZKENA 22

**LASARTE-ORIA Zinema**  
*Amazing Grace* dokumentala eskainiko dute, Okendo Zinema taldearen eskutik. 1972an, Aretha Franklin abesleak gospel kontzertua eskaini zuen bi egun jarraian Wattseko eliza batean. Kontzertu horretan *Amazing Grace* abesti eta diska ezaguna grabatu zuen. Euria egingo balu, ez litzateke proiektu hori egongo. Maskara janztea derrigorrezkoa da.  
Okendo plaza, 22:00etan.

## II. Haurraren Eguneko txorimalo lehiaketako lan onena aukeratzeko azken egunak

### Txintxarri

Ekain amaieran ospatu zuten herritarrek II. Haurraren Eguna, Ttakun Kultur Elkartearen eskutik. Aurreneko edizioan mozerro lehiaketa prestatu zuten, eta, bigarrenean, ekimenari bueltatxo bat eman eta txorimalo lehiaketa bat egitea erabaki zuten, paisaia tradizionalari

protagonismoa eman eta, aldi berean, gaur egungoa apaintzeko helburuz. Txorimaloek landa-bizitzarekin, eta bertan sortu izan diren arazoekin, lotutako giza forma bizidunak irudikatzen dituzte.

Bost txorimalo dotore-dotore bidali dituzte herritarrek txintxarri.eus web orrialdera, eta, benetan zaila bada

ere, lanik onena aukeratzea dagokizu orain, irakurle. Horretarako, esteka honetan bozka eman behar duzu: [txintxarri.eus/lehiaketa/1593071433105](http://txintxarri.eus/lehiaketa/1593071433105). Azkeneko eguna uztailearen 12a izango da, igandea. Boto gehien biltzen dituen txorimaloaren egileak 50 euroko bonu bat irabaziko du, Maite liburu-dendan erabiltzeko.




'Lisi' txorimaloa.




'TX0mix' txorimaloa.



'Markeltxo' txorimaloa.



'Buddy' txorimaloa.



'Txori' txorimaloa.





Lasarte-Orian aski ezaguna den Sorgin Dantzako panpinatxoak. PEIO AGIRRE



Pippi Kaltzaluze, Nelson jauna tximinoarekin eta Osaba Txikia zaldiarekin. PEIO AGIRRE



Asterix eta Obelix. PA Joalduna. PEIO AGIRRE KISS taldeko musikariak. PEIO AGIRRE

# Herriko sorgin dantzariak Berrizen geratu dira

Playmobil panpinak kustomizatzen ditu Peio Agirre berriztarrak. Askotariko pertsona eta pertsonaia bihurtu ditu Playmobil panpina; 120 pieza sortu ditu orain arte eta horien artean aurkitu daitezke euskal kulturako pertsonaia ugari

## Maddi Zaldia

"Betidanik" dator kio Peio Agirre (Berriz, 1969) playmobil panpinekiko afizioa. "Txikitatik" jolastu izan du horiekin, baina duela hiruzpalau urtetatik, jolastu baino, kustomizatu egiten ditu panpinatxoak. Andaluziara egindako bidaia batek animatu zuen zaletasun berri horretan murgiltzera.

Espainiako hegoaldean hain ezagunak diren prozesioak irudikatzen zituzten playmobil panpinatxoak betetako dioramekin egin zuen topo bidaia hartan, eta orduan pentsatu zuen, andaluzek egiten bazuten, zergatik ez zion berak ere afizio horri ekingo, eta halaxe egin zuen. Dagoeneko 120 panpinatxo baino gehiago sortu ditu; besteak beste, KISS musika taldea, Pippi Kaltzaluze, Frida Kahlo, eta beste pertsonaia asko bizi dira egilearen tailerrean, tartean, Euskal Kulturako pertsonaia ugari ere bai: Altsasuko Momotxorroak, Ituren eta Zubietako Joaldunak eta Zuberoako Maskaradako dantzariak. Baina baita ere, Lasarte-Orian hain kuttuna den Sorgin Dantzako dantzariak.

Antzeman diegu, ordea, herriko Sorgin Dantzako dantzariaren

ezberdintasunik: Agirrerren panpinatxo gizonetakoaren kapela urdin argi kolorekoa da, eta Lasarte-Oriakoek, berriz, gorri kolorekoa erabiltzen dute.



Peio Agirre

Dantzaria den aldetik ere dantzas badaki zerbait Agirrek, eta detaile horren azalpena eman du. Sorgin Dantzan, hasieran, kapela urdina erabiltzen zela jakinarazi du. Beste datu bat ere eman du; Sorgin Dantza Bergaran sortu zela du ulertua, eta handik Lasarte-Oriara lanera etorritakoek ekarri zutelako herrira, gaur egun Lasarte-Oriako ikur bilakatu den dantza.

## Afizioa, ez ofizioa

Sortu behar duen panpinatxoaren arabera, denbora gehiago edo gutxiago behar izaten du Agirrek lana hasi eta amaitzeko: "Sortzen ari naizen panpinatxoaren arabera da behar dudana denbora; pintatu egiten ditut, eta pinturak lehertzeko denbora bat behar duenez, horrek markatzen du hasi eta amaitzeko denbora, baina gehienez, astebetean amaitzen dut bat; bestela sei bat ordutan amaituta daukat".

Merkatuan ez dituzte txapela, gerriko eta zapiak dituzten playmobil panpinatxoak saltzen,

hain zuzen ere, osagarri horiek guztiak sortuz apaintzen ditu Agirrek bereak. Horretarako "moldekatzeko pasta" erabiltzen du: "behin lehortuta, gogor-gogor geratzen da".

Ez zuen inolaz espero izaten ari den "arrakasta". Asteotan komunikabide ugari jarri dira berarekin harremanetan, eta "pozgarria" zaion arren, "eromena" izaten ari dela aitortu dio TXINTXARRI-ri. Eskaerak ere nabarmen igo zaizkio, eta hori guztia kudeatzen saiatzen ari da orain. Halere, presente du beti Agirrek, Playmobilekin egiten duena zaletasuna dela, ez ofizioa, eta hala izaten jarraitzea nahi du gainera: "Afizioa ofizio bihurtzen den momentuan, akabo". Eguneroko eginkizunetatik erlaxatzeko baliagarri zaio afizioa.

AEBetatik ere jaso du eskaera bat baino gehiago, eta sortu dituen pieza guztietatik gehien eskatzen dituztenak dantzariak direla azaldu du. Orain, Gasteizko pertsonaia famatu bat sortzeko lanetan ari da: Zeledon.

Inork artista berriztarraren lanik erosi nahiko balu sare sozialen bidez (instagrama: *playmobil.customizados* edo facebooka: *peioagirrecustom*) jarri daiteke berarekin harremanetan.

## TTAKUNEK KULTUR DINAMIZATZAILEA BEHAR DU

*Kultur programak edota jendarte dinamizatzeko proiektuak kudeatzea izango dira bere zeregin nagusiak, besteak beste, Euskaraldia eta Euskararen Maratoia.*

- **Ezinbestekoa:** - Euskara ondo menperatzea ahoz eta idatziz.  
- Kultur egitasmoen kudeaketan eskarmentua.  
- Soziolinguistikako ezagutzak izatea.

- **Zeregin nagusiak:** - Euskaraldiaren dinamizazioa: herri batzordearen eta boluntarioen lana koordinatu, koordinazio orokorreko mintegi eta bilereetan parte hartu.  
- Herriko kultur jarduerak antolatu eta dinamizatu.  
- Herriko eragileekin elkarlana bultzatu.  
- Ekimenen aurrekontua kudeatu.

Interesa izanez gero bidali curriculum [ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus) edo  
Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, helbideetara,  
uztailaren 16a baino lehen.

Informazio gehiago: [labur.eus/ttakundinamizatzaile](http://labur.eus/ttakundinamizatzaile)

